

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZAMBRANAKO UDALA

#### **Landa, Hiri eta Ezaugarri Bereziak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kobrantza-aldia irekitzea 2020 ekitaldian**

94/2020 Alkatetza Dekretuaren bidez ebatzi da 2020ko uztailaren 1etik aurrera borondatezko kobrantzan jarriko direla 2020ko ordainagiri hauek:

- Landa- eta hiri-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinaren gaineko zerga.

I. ordaintzeko epea:

A) Borondatezko aldia: 2020ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra.

B) Beteazpen-aldia: 2020ko irailaren 1etik aurrera hasiko da beteazpen-aldia, eta premia-mendu murriztuko eta premiamendu arrunteko errekaru exekutiboak sortuko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Banku-erakundeetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetan helbideratuta dutenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko banku-helbideratzearen kontua mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

B) Banku-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak, ordainketa-gutunaren bidez, helbide honetan:

- Kutxabankeko bulegoak.
- Nafarroako Rural Kutxaren bulegoak.
- Internet bidez, [www.euskadi.eus/nireordainketa](http://www.euskadi.eus/nireordainketa) orrian.

III. Gomendioak:

Banku-helbideratzeen altak edo aldaketak, bai eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide-aldaketak ere, Zambrabako Udalean izapidetu beharko dira 2020ko uztailaren 1a baino lehen.

IV. Zatikatze eskabideak udal-bulegoetan formalizatu ahal izango dira 2020ko ekainaren 20ra arte, inprimaki espezifikoa, egun horretan indarrean dagoen arreta-ordutegian.

Horren berri ematen da, jende guztiak jakin dezan.

Zambrana, 2020ko ekainaren 1a

*Alkate-udalburua*

*AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI*